

# BESTELAKO XEDAPENAK

## EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

### 4293

*EBAZPENA, 2015eko urriaren 13koa, Merkataritza eta Turismoko sailburuordearena, ezagutza, berrikuntza eta merkataritza-lehiakortasuna sustatzera eta hedatzera bideratutako laguntzak emateko deialdia jakitera ematen duena, 2015eko ekitaldirako.*

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2015ko irailaren 30eko Aginduaren bitartez (2015eko urriaren 9ko EHAA, 193. zk.), ezarri egin dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek ematen dituen laguntzen nondik-norakoak, hain zuzen ere ezagutza, berrikuntza eta merkataritza-lehiakortasuna sustatzera eta hedatzera bideratutako laguntzetarako.

Berrikuntza eta merkataritza-lehiakortasuna sustatzera eta hedatzera bideratutako laguntza-programa arautzen duen agindu horren 8. artikuluekin bat, programan iragarritako laguntzak emateko 2015ko ekitaldiko deialdia egin behar da, eta horretarako eman beharreko arauak eman.

Horiek horrela, aipatutako aginduaren 8. artikuluan ezarritako eskumena erabilita, hau

#### EBAZTEN DUT:

##### 1. artikulua.– Xedea.

Ebazpen honen xedea da: deialdia egitea Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun sailburuaren 2015eko irailaren 30eko Aginduan xedatutako laguntzetarako, 2015eko ekitaldirako, hain zuzen ere ezagutza, berrikuntza eta merkataritza-lehiakortasuna sustatzera eta hedatzera bideratutako laguntzetarako.

##### 2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

Deialdiko laguntzak finantzatzeko, 174.000 euro jarriko dira.

Deialdi honi lotuta emango diren diru-laguntzen zenbateko osoa ez da izango artikulua honetan finkatutako diru-kopurutik gorakoa, edo, indarrean dagoen legeriari jarraituz, kredituen arteko loturarik edo aurrekontu-aldaketarik badago, lehengoa eguneratuta sortutako diru-kopurutik gorakoa. Horrenbestez, diru-kopuru hori agortutakoan, ezin izango da diru-laguntza gehiago eman; beraz, hortik aurrera, baliorik gabe geratuko da ebazpen hau. Egoera horietako bat izanez gero, haren berri jakinaraziko da Merkataritza eta Turismoko sailburuordearen ebazpen baten bidez.

##### 3. artikulua.– Eskabideak aurkezteko baldintzak, lekua eta epea.

1.– Laguntzak eskuratzeko, programa arautzen duen Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2015eko irailaren 30eko Aginduaren 3. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte enpresa eskatzaileek.

2.– Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2015eko irailaren 30eko Aginduaren 9. artikuluan xedatutakoarekin bat, eskabideak eta gainerako agiri osagarriak aurkezteko, bide telematikoak erabili daitezke, edo aurrez aurre aurkeztu Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren lurralde-ordezkaritzan –proiektu egingo den lurralde historiko hartan–, Eusko Jaurlaritzaren Herriarrei Laguntzeko Bulegoetan (Zuzenean), edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan zehaztutako tokietan.

Egoitza elektronikoa honen bidez baino ezin izango dira eskabideak eskuratu eta bete: <http://www.industria.ejgv.euskadi.net/p88a/p88aGestorServlet?PRESTACION=login&FUNCION=login&ACCION=login&RESPUESTA=ok&p88a.codlinea=div&verb1=true>

3.– Eskabideak aurkezteko epea hau da: 2015eko urriaren 14ko 09:00etatik 2015eko azaroaren 13ko 12:00etara.

#### AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak deialdi-ebazpen honek.

#### AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakiok Eusko Jaurlaritzako Ekonomia-ren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko urriaren 13a.

Merkataritza eta Turismoko sailburuordea,  
ITZIAR EPALZA URQUIAGA.